

Neska-mutilentzako irakurketa lehiaketa antolatu du Urdulizko Kultur Etxeak

Urdulizko Kultur Etxeak irakurketa lehiaketa antolatu du 6 eta 14 bitarteko liburutegiko irakurle guztientzat. 'Irakurriz Jolastu' izenburuko ekimenak abenduaren 30era arte iraungo du. Lehiaketan parte hartu nahi duten guztiak liburutegian bere datuak eman beharko ditu. Horrenbestez, hiru maila bereiztu dituzte: gorria, 6 urtetik aurrerakoentzat; berdea, 9 urtetik gorakoentzat; eta horia, 12 urte baino gehiago duten neska-mutilentzat. Parte hartzaileek, emango zaien zerrendatik, gutxienez, 4 liburu irakurri beharko dituzte. Maileguan eskatutako liburuarekin batera, fitxa bat emango da. Mailegu hau ezin izango da 15 egun baino luzeagoa izan; egun horiek pasa eta gero, parte hartzaileek liburua eta fitxa behar den moduan beteta bueltako dute. Maila bakoitzeko sari bat egongo da. Saria liburuak edota material didaktikoa erosteko 100 euroko bale bat izango da, bertan adierazten dan liburudendan trukea egiteko. Argazkian, Urdulizko kultur etxeko eraikina.

Antolatzaileek beste sari-bale bat zozketatuko dute euskaraz idatzita dauden 3 liburu gutxienez irakurri dituztenen artean. Gainera, ondo betetako fitxa guztiak zozketetan sartuko dira. Partaideak zenbat eta fitxa gehiago ondo beteta entregatu aukera gehiago izango du saria lortzeko, baina bat baino gehiago ezingo du eraman. Erabakia 2009ko urtarrilaren 23an jakinaraziko da eta sari banaketa hilaren 31n izango da, 13:00etan.